

Gatikan, 2018ko irailaren 7an

Gatikako *Interkonexio elektrikorik ezi* elkarteak, testu hau luzatzen dizue Gatikako Udal talde guztiei, hilabete honetako komisioetan aztertu eta osoko bilkuran bozkatua izan dadin.

### MOZIOA

Gatikako udalak *Red eléctrica Españolaren (REE)* jarrera salatu nahi du, *Consultoría geología geotecnia (CGG)*-ren bitartez egin dituen ekintzengatik hain zuzen ere. CGG-k, Gatikako herrian, Iberdrolaren azpiestazio elektrikoaren inguruko lurzoruetan katak egin ditu azken egun hauetan, lurzoruetako jabeen baimenik gabe.


Gertakariak, Gatika eta Cubnezais (Burdeos) herrien artean egin nahi duten interkonexio elektrikoa proiektuaren baitan kokatzen dira.

Horregatik guztiagatik, **Gatikako Udalak** ondorengo adierazten du:

- Mota horretako jarrerak eta ekintzak gaitzesten ditu.
- Kaltetutako auzokideei eta jabeei **elkartasuna adierazten** die.
- REE-ren ekintza gatarrenganako eta kaltetutako auzokideeenganako **errespetu faltatzat jotzen** du.
- Gatarrei babesa emango die eta egin beharreko gestioak egiten lagundu, egiazko informazioa emanez, horrelako erasoak ekiditeko asmoz.
- Gatikako udalak ez dio REEri, edo proiektu honetan lan egiten duen edonori, inolako laguntzarik emango.

Gatikako *Interkonexio elektrikorik ezi* elkarteak



SA-IRERA	IRTEERA
0951	
2018 E. 07	
	GATIKAKO UDALA